

ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEN LEHIAKORTASUNERAKO PROGRAMA (COSME) 2014-2020

ERREFERENTZIA

Enpresa eta ETE-en Lehiakortasunerako Programa (COSME Programa 2014-2020). (Europako Batzordea Enpresak eta Industria ZN).

HELBURUAK

COSME Programa enpresen lehiakortasuna hobetzeko bideratutako ekintzen programa bat da, bereziki, enpresa txiki eta ertainenak.

Programaren helburu nagusiak Batasuneko enpresen, bereziki ETE-en, lehiakortasuna eta jasangarritasuna sendotzea eta enpresa-kultura sustatzea dira, horretarako ETE-en sorkuntza eta hazkundera sustatuko direlarik.

Programaren berariazko helburuak izango dira:

- ETE-en finantziatorako sarbidea hobetu, bai kapital bai zorrarena.
- Merkatuetarako sarbidea hobetu, bereziki, Batasunaren barruan baina baita mundu mailan ere.
- Ekintzailatza eta enpresa-kultura sustatu.

EKINTZAK

a) ETE-en finantziatorako sarbidea hobetzeko ekintzak hasiera, hazkundera eta transmisio faseetan. Era berean, mugaz haraindiko eta nazio anitzeko finantziarioa hobetzera bideratutako ekintzak ere lagun daitezke.

b) ETE-en barne merkatuetarako sarbidea hobetzeko ekintzak, hala nola, Batasuneko programak, legedia edo arauen inguruko informazio eta sentsibilizazio ekintzak, etab... Berariazko neurriek ETE-ei Batasunetik kanpoko merkatuetarako sarbidea erraztea izango dute helburu eta, era berean, nazioarteko lankidetzaren sustatzea ere izan dezakete helburu.

c) Enpresak laguntzeko Europar Sarea (EEN/ELES): Batzordeak Enpresen Europar Sarea babestuko du barne-merkatuan eta beste herrialde batzuetan aukerak aztertu nahi dituzten Batasuneko ETE-ei enpresa laguntza zerbitzu integratuak eskaintzeko asmoz.

d) Batasuneko enpresen lehiakortasuna eta jasangarritasunerako baldintza orokorrak hobetzera bideratutako ekintzak, bereziki, ETE-ena, EB-ko enpresen lehiakortasuna, jasangarritasuna eta hazkundera sustatzen duten nazio eta eskualdeko politiken eraginkortasuna, koherentzia, koordinazioa eta izaera sistemikoa handitzeko.

e) Ekintzailatza eta enpresa-kultura sustatzen duten ekintzak, ekintzailatzaren garapenean eragiten duten baldintza orokorrak hobetuz, baita enpresen sorrerarako diren oztipoen murrizketaren bidez. Batzordeak enpresa jasangarrietarako, enpresen sorrerarako, hazkunderako, enpresen transmisiorako, bigarren aukerarako (berrabiarazpena) eta enpresa-hazien sorkuntzarako mesedegarri den testuingurua eta enpresa-kultura babestuko ditu.

ONURADUNAK

Enpresak, ETE-ak batez ere, autonomo bihurtu nahi diren langileak, aginte erregionalak eta lokalak.

AURREKONTUA

2.298.243.000 euro

GAUZATZE ALDIA

2014-2020

INTERESEKO ESTEKAK

[Programa ezartzen duen arautegia](#)

[Europako Batzordearen web orrialdea - Enpresak laguntzeko Europar Sarea \(EEN/ELES\)](#)

INFORMAZIO GEHIAGO

Europako Batzordea

Enpresa eta Industria ZN

Rue de Loi, 200

B-1049 - Brusela

Fax: 32-2-298 79 50

entr-cip@ec.europa.eu

ERABILERA KIROLEAN

Adibidez, honako proiektu mota hauek aurkeztu daitezke:

- Kirolaren munduan ekintzaitza sustatzeko zuzendutako proiektuak;
- Publiko ezberdinentzako informazio eta sentsibilizazio ekintzak;
- Klusterretarako laguntza;
- Sustapeneko turismo agenteak bezala kirol ekitaldiak lantzen edo garatzen dituzten proiektuak;
- Ibilaldi turistikoak sortzea kirol ekintzen inguruan